

# LEN BURRUKEA, ORAIN GUDEA

Geienez gizakikeri-zale (individualismo) agertu yakut gizonak XIX. eunkian. Gizakikeriz gogorituta ta igoindut taldekeri (individualismo de clase) ta lateri keri (estatismo) nazkagarietara jo dabe XX. eunkian.

Bataren igeri, beste pendizean jausi.

Korpadi ta batza bereziak izan ebezak gizocak aspaldi. Paotzeko matxinada aundia ezkero gizaki-azkatasun zaletasuna geitu ta indartu egin izan da. Azke az-esan eusen orduan gizonei ta gizonok azke ziraiakotan, beingoan apurtsu ebezak batza-lokafiaz.

Azke ziraiakotan ebiltzanok lotuta egozana ikusten asi ziran. Gizakiok azke egiteoi, jaunei, ugazabe, dirudimes ta agintariei on izan yakoentz. Euron zaikeri ta nekenkeri erpepean beingoan artu eben gizaki (individuo) azkeoi. Berezikoezin, alkartuta egon izan ba-zan, erperik ezin ezati izango eutsan ugaztua edo eskuartetsuak, baina bakarrik ebiltzanoi gura eberex ezarten eutssezan euren erpe zoñotzak.

"Indartsuaren eta makalaren dirutsuaren eta txiruaren artean, azkatasuna lokari da ta legea azkatasun", Lacordairek esaten ebanez.

Erpepean bizi izatea latz ta gañatz zana ikusirik eta erpepe oristatik bakanik ezin urten izango ebena sarturik, batza lokafiaz lenago gofoto izan ebezak. Langileok, alkartzen asi ziran. Langile-batzok edo alkarguok burukazaletasuna edeñez ezkottuta sortu ziran. Taldekeri-burrukea asi yaku.

Burukan jardun beafa, gizonen zoritzat.

Ainbat leh egia eta zinbat odol izuri dabentz langileok, euron gurariak bete da-bez toki batzuetan. Eurok eskuratu dabe aginpidea. Euron Lateñia edo Estadua sortu dabe.

Gizon, notin diranez yagokoen onurarak lortu dabe? Lateri ofertan, langile-laterietan notiñari (persona) edo gizonaren notiasunari begiramen gitxi yaku. Jardun eta ekite ororen elburu Lateñia edo Estadua da. Notiña, gizon-izatea bartartuta geratu da.

Ofein ausez-aufe jagi diranak, bē, taldekeri-burrukeoj ontzat artzen ez dabentz aferi-buruka zale dira. Lateñikeri-zale doguz.

Batetik eta bestetik XX. eunkia lateñikeri-eunki biurtu yaku. Langileok euron onaren bila, laterikerira jo dabe; laterikeri-zalez langile-lateriak sortu nai da-bez. Taldekeri ta langile burukeon bidez lortu dabentzen eredu Rusia dogu.

Enderi-zalekeriz abertzalekeriz ta balsakeriaren igeri lateñikerina (estatismo) jo dabe matxinada zale ez dirala diñoenak be. Begire Italia'ra edo Alemania'ra.

XIX. eunkian gizakiarentzat doguz begiramen guztia eta gizaki azkatasuna da ames bakar. Gizaki-azkatasun oñek gizonari ez eutsion onurarak ekari. Gizaki-azkatasuna bide, gizakirik geienak erpepean artu ebezak. Liberalkeriak odol-izurite aundiak sortu ebaean. Goikoen eta bekoen, ugazaben eta langileen arteko buruka zitala sortu eban; taldekeri-burrukea.

XX. eunkia laterikeri-eunki dogu. Batzuk eta bestetzuk, alakaren arerio diranak lateñikeri-zale doguz; lateria sendotzea ta indartzea ofein ames; ora ausez-aufe ames orixe dagien marxistakeri-zale ta paxistakeri-zaleak.

Gizon-izatea ukatuaz, notiñaren izarea onartzen ez dabentz Lateriak, alabarez gizonaren ondamentzi doguz. XIX. eunkiko gizaki-azkatasuna gizon geienen lokai izan zanez.

Oraingo laterikeritik laterien arteko burrukea, gudea besterik ezin itxaron da-le. Lateñiok euron aforeria, euron agindu-nais, euron ilor menderatua gurta da-be elburu bakar.

Eurok azken-elburu egiten diranez, gizadi guztia ondatzeko, be, eskubidean da-bela dirudi. Lateñikeriok geure ondamentzi, gizonon galbide izango dogu naiz zurien naiz gorien izan.

Lateñion arteko buruka ofein ostean, notiñak, gizonak bere aldia izango ets daus... .